**INGURUMENEKO TOKIKO FOROAREN BILERAREN AKTA**
**(17.06.14)**

HIRIGINTZA ZINEGOTZIA:
JOSEBA ARREGI jn.

INGURUMEN ZINEGOTZIA:
JOSÉ LUIS LANDA jn.

INGURUMENEKO TEKNIKARIA:
JOSU ATEKA jn.

FOROKO IDAZKARIA:
ARANTZA CABEZA and.

ZERBITZU TEKNIKOEN SAILA-ZERBITZU AZPIEGITURA
KEPA SACRISTÁN jn.

LEBER PLANIFICACIÓN E INGENIERÍA:
IOSU RAMIREZ jn.

AHOLKULARIA:
EUGENIA ATIN and.

BERTARATUTAKOAK:

CARLOS ARANA jn. (Sarekideko ordezkaria)
XABIER BUENETXEA jn. (Ingurumen gaietan ospe handia duen pertsona)
NATIVIDAD MORALES and. (Gizatiarreko ordezkaria)
JON IÑAKI LLONA jn. (Basozaleakeko ordezkaria)
DIMAS RAMOS jn. (Kirol elkarteak)
JAVIER GALÁN jn. (GetxoEnpresako presidentea)

Honako hauek ezin etorria azaldu dute: AGURTZANE OLAIZ EGURROLA and. (Romoko ikastetxe publikoko irakaslea), JAVIER LOIDI jn. (Unibertsitate munduko pertsona), JOSU INTXAURRAGA jn. (Itxartu Taldea), CELIA MARAÑON and. (Ekologistak Martxan) eta JUANJO QUIÑONES jn. (Urtealaiakeko ordezkaria).

Getxon, 2017ko ekainaren 14an, arratsaldeko zazpietan bildu da Getxoko Ingurumeneko Tokiko Foroa, eta arestian aipatutako kapitularrek parte hartu dute.

**GAI ZERRENDA**

Bileraren hasieran, Eugenia Atin andreak arestian esandako Foroko zenbait kidek ezin etorri izana adierazi dutela aipatu du eta gai zerrenda aurkeztu du.

Eugenia Atin andreak Kepa Sacristán jauna, Getxoko Udaleko Azpiegitura Unitateko ingeniari burua, eta Iosu Ramirez jauna, Leber Planificación e Ingeniería kontratatutako enpresatik

**ACTA DE LA REUNIÓN DEL FORO LOCAL DE MEDIO AMBIENTE**
**(14.06.17)**

CONCEJAL DE URBANISMO:
D. JOSEBA ARREGI

CONCEJAL DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSÉ LUIS LANDA

TECNICO DE MEDIO AMBIENTE:
D. JOSU ATEKA

SECRETARIA DEL FORO:
Dª ARANTZA CABEZA

ÁREA DE SERVICIOS TÉCNICOS-INFRAESTRUCTURA SERVICIOS.
D. KEPA SACRISTÁN

LEBER PLANIFICACIÓN E INGENIERÍA:
D. IOSU RAMIREZ

CONSULTORA:
Dª EUGENIA ATIN

ASISTENTES:

D. CARLOS ARANA (Representante de Sarekide)
D. XABIER BUENETXEA (Persona de reconocido prestigio en Medio Ambiente)
Dª NATIVIDAD MORALES (Representante de Gizatiar)
D. JON IÑAKI LLONA (Representante de Basozaleak)
D. DIMAS RAMOS (Asociaciones Deportivas)
D. JAVIER GALÁN (Presidente de GetxoEnpresa)

Excusan su no asistencia, Dª AGURTZANE OLAIZ EGURROLA (profesora del Colegio Público de Romo), D. JAVIER LOIDI (Persona del mundo de la universidad), D. JOSU INTXAURRAGA (ItxartuTaldea), Dª CELIA MARAÑON (EkologistakMartxan) y D. JUANJO QUIÑONES (Representante de Urtealaiak).

En Getxo, a 14 de junio de 2017 se reunió a las diecinueve horas de este día el Foro Local de Medio Ambiente de Getxo, con asistencia de los capitulares reseñados.

**ORDEN DEL DÍA**

Al comienzo de la reunión, Dª Eugenia Atin excusa la no asistencia de algunos miembros del Foro anteriormente citados y presenta el orden del día.

Dª Eugenia Atin presenta a D. Kepa Sacristán, Ingeniero Jefe de la Unidad de Infraestructura del Ayuntamiento de Getxo y a D. Iosu Ramirez de la empresa contratada Leber Planificación e

etorritakoa, aurkeztu ditu. Gaurkoan, 2017-2030 aldirako Getxoko Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarriaren (HMPJ) ezaugarri nagusien berri emango diote Foroari.

Ingeniería, que hoy darán a conocer al Foro las características fundamentales del Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS) 2017- 2030 de Getxo.

**1.- Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarria (HMPJ)**

Aurkezpena Iosu Ramírez jaunaren eskutik. Getxon hiri-mugikortasuneko eredu osasungarriago, eraginkorrago eta jasangarriago bat bultzatzeko erronka daukagu. Horiek horrela, dagoeneko lanean ari gara HMPJ (Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarria) egiteko. Estrategia horren bidez, mugikortasun jasangarriaren alorreko jarduketen norabidea ezarri eta jarduketok koordinatuko dira 2017-2030 aldirako.

Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarria egiteko bi fase daude:

1.- Egoeraren diagnostikoa egitea, Getxoko egungo mugikortasun-ereduaren ezaugarriei buruzko ikuspuntu errealista bat eskaintzen duena.
2.- Jarduketa-plan bat egitea, diagnostikoan aipatutako erronkei erantzuna emateko neurri zehatzekin.

Udalaren aburuz, funtsezkoa da HMPJ modu parte-hartzailean eta eragile desberdinen laguntzarekin egitea, bai eta helburu komun batekin ere: herritarren ekarpena maximizatzea Hiri Mugikortasunerako Plan Jasangarria eraikitzeko.

Horrenbestez, herritarren parte-hartze prozesua ere bi fasetan banatuta dago: diagnosi-faseko parte-hartzea eta neurriak egiaztatzeko faseko parte hartzea. Gaur egun, diagnosi-faseko parte-hartze prozesua amaitzear dago. Parte-hartze horren helburua honako hau da: herritarren beharrak eta eskaerak entzutea eta mugikortasunaren eremu bakoitzari dagokion beharrizan sozial espezifikoa antzematea (oinezkoak, txirrindulariak, garraio publikoa…).

Joan den maiatzaren 25ean, herritarrekin bilera bat egin zen Elkartegin, herritar guztiei zuzendutako jardunaldi baten baitan. Bertaratuek ekarpenak eta iradokizunak egiteko aukera izan zuten, Getxon mugikortasun-eredu jasangarri egokiago bat diseinatzen laguntzeko.

Interes-taldeekin bilera bat egin zen ekainaren 7an.
Parte hartzeko saio hori honako hauei zuzenduta zegoen: ehun sektorialeko, sozialeko eta ekonomiko-profesionaleko erakunde eta elkarteak; auzo-elkarteak; berdintasunerako kolektiboak; merkatariak, eta mugikortasunaren alorretik hurbilen dauden elkarte sektorial, sozial eta profesionalen ordezkariak. 200 gonbidapen bidali ziren eta 20 pertsona bertaratu ziren. Tamalgarria da parte-hartze indize hain baxua egotea aurrez aurreko ekitaldietan. Hala ere, kontuan hartu beharra dago parte-hartze urria egoteak kezka gutxi dagoenaren seinale dela. Saioak hiru astez iragarri ziren Getxo Berrin, webgunean jarritako *banner*en eta faldoien bidez, irratian… Mezua behar adina zabaldu da.

Era berean, herritarrei inkestak egiten ari dira, pertsonen ohiturak

**1.- Plan de Movilidad Urbana Sostenible (PMUS)**

Exposición a cargo de D. Iosu Ramírez. Con el reto de impulsar un modelo de movilidad urbana más saludable, más eficiente y más sostenible para Getxo, se está trabajando ya en la elaboración del PMUS (Plan de Movilidad Urbana Sostenible), una estrategia que marcará el rumbo y coordinará las actuaciones en materia de movilidad sostenible para el horizonte 2017-2030.

La elaboración del Plan de Movilidad Urbana Sostenible consta de 2 fases:

1.- La realización de un diagnóstico de situación que ofrece una fotografía realista sobre las características del modelo de movilidad de Getxo en la actualidad.
2.- La elaboración de un plan de actuación con medidas concretas para dar respuesta a los retos señalados en el diagnóstico.

El Ayuntamiento entiende fundamental elaborar el PMUS de forma colaborativa con la participación de diferentes agentes, y con un objetivo común: maximizar la contribución de la ciudadanía a la construcción del Plan de Movilidad Urbana Sostenible

El proceso de participación ciudadana por lo tanto consta también de 2 fases: la participación en la fase de diagnóstico y la participación en la fase de contraste de medidas. En la actualidad se está terminando la participación en la fase del diagnóstico. El objetivo de esta participación es captar las necesidades y demandas de la ciudadanía así como obtener la demanda social específica de cada ámbito de la movilidad (peatón, ciclista, transporte público,…).

El pasado 25 de mayo tuvo lugar el encuentro con la ciudadanía en el Elkartegi, con una jornada abierta a toda la ciudadanía, donde los asistentes tuvieron la oportunidad de realizar contribuciones y sugerencias para ayudar a diseñar el modelo de movilidad sostenible más adecuado para Getxo.

El encuentro con los grupos de interés se celebró el 7 de junio.
Esta sesión participativa estaba enfocada a asociaciones y organizaciones del tejido sectorial, social y económico-profesional, asociaciones de vecinos, colectivos de igualdad, comercios, representantes de asociaciones sectoriales, sociales y profesionales más próximas al ámbito de la movilidad. Se enviaron 200 invitaciones y acudieron 20 personas. Es una pena que haya un índice tan bajo de participación en los actos presenciales aunque sí que es cierto que una baja participación indica que no hay una preocupación. Las sesiones se anunciaron durante 3 semanas a través de Getxo Berri, banners y faldones en la web, radio… El mensaje se ha difundido suficientemente.

Al mismo tiempo, se están realizando encuestas a la ciudadanía

ezagutzeko: nola mugitzen diren, nola joaten diren lanera, nondik nora doazen, zenbat aldiz egunean, nola, eta abar. Lau mila inkesta bidali dizkiegu familiei eta 400 erantzun inguru jaso ditugu, 1.000 auzotar baino gehiago ordezkatzen dituztenak. Oso lagin adierazgarria da.

para conocer los hábitos de las personas, cómo se mueven, cómo van a trabajar, de dónde a dónde a van, cuantas veces al día, de qué manera, etc. Se han enviado cuatro mil encuestas a las familias y se han recibido unas 400 respuestas, representando a más de 1.000 vecinas y vecinos. Se trata de una muestra muy representativa.

Ikastetxeekin ere lan egingo da, eta haurrei euren auzoa nolako den marrazteko eskatuko zaie. Oso esperientzia interesgarria da, mugikortasun-elementuak agertu ohi direlako: autoak, bizikletak, jolasteko espazioak… Getxon duela urte batzuk marraztu zutena esku artean daukagunez, bi emaitzak erkatu ditzakegu beharrizanak identifikatzeko.

Se va a trabajar también con los colegios, pidiendo a las niñas y niños que nos dibujen cómo es su barrio. Se trata de una experiencia interesante porque suelen salir elementos de movilidad: coches, bicicletas, espacio de juegos… Como además disponemos de lo que se dibujó en Getxo hace años, la comparativa puede ayudar a identificar necesidades.

Diagnostikoa eginda dago dagoeneko. Teknikariek den-dena neurtu dute jadanik eta hirigintzarekin zerikusia duen dena kontuan hartu da, mugikortasuna behartzen duelako. Eusko Jaurlaritza eta Aldundia bezalako beste erakunde batzuen datuak ere kontuan hartzen dira. Mugikortasunaren eremu guztiak aintzat hartzen dira: bizikletak, kotxeak, Bizkaibusa, metroa…

El diagnóstico está ya realizado, los técnicos ya han medido todo y se ha tenido en cuenta todo lo que tiene que ver con urbanismo porque fuerza la movilidad. También se tienen en cuenta los datos de otras entidades como Gobierno Vasco y Diputación. Se contempla cada ámbito de la movilidad: peatones, bicis, coches, Bizkaibus, metro…

Aparkalekuari dagokionez, honako hau neurtzen da: kotxeek kalean zenbat denbora ematen duten aparkatuta, non aparkatzen duten, Arautzutako Aparkaleku Zerbitzuak (AAZ) funtzionatzen duen, zerbitzua handitzeko beharra dagoen... Mesedeetako aparkalekuaren erabilera aztertzen da, aparkatutako kotxeen matrikulak aztertzen dira, baita Getxo ez den beste leku batetik datozen eta zer distantziara bizi diren ere, aparkalekua auzotarrentzako nola dagoen... Zehaztasun handiarekin kuantifikatzean datza, aparkalekuaren arazoaren tamaina zein den jakiteko. Bidegorri-sareari dagokionez, hobekuntza posibleak inbentariatu eta identifikatu behar dira.

Con respecto al aparcamiento, se mide cuánto tiempo están los coches aparcados en la calle, dónde se aparca, si el servicio de estacionamiento regulado SER (OTA) funciona, si hay que ampliar... Se analiza el uso del parking de las Mercedes, se analizan matrículas de los coches aparcados, si vienen de fuera de Getxo, a que distancia viven, qué tal está el aparcamiento para los vecinos. Se trata de cuantificar con mucho detalle para identificar cómo de "grande" es el problema de aparcamiento. Con respecto a la red ciclista hay que inventariar e identificar las posibles mejoras.

Kuantifikazioa dagoeneko egin dugu eta zenbakiek gauzak nola funtzionatzen duten adierazi digute. Orain nola jokatuko dugun zehaztu behar dugu. Mugikortasunaren inguruko helburuak aukeratuko ditugu guztion artean. Dagoeneko zer daukagun dakigunez gero, martxan jarri beharreko neurriak/jarduketak ezarri ahal izango ditugu. Zehazki, honako hau egitean datza: neurriak proposatzea, horiek erkatzea eta denbora-horizontea eta bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartuta lehentasunak ezartzea. Lehenespen horretan, herritarrek parte hartuko dute beste behin, hartu beharreko neurriak egiaztatzeko.

Ya hemos cuantificado y los números marcan cómo funcionan las cosas, ahora lo importante es cómo vamos a actuar. Entre todos elegiremos unos objetivos con respecto a la movilidad y como sabemos lo que tenemos, podemos establecer las medidas/ actuaciones a poner en marcha. Se trata de proponer medidas, contrastarlas, priorizarlas teniendo en cuenta el horizonte temporal y viabilidad técnica y económica. En esta priorización entrará de nuevo la ciudadanía para contrastar las medidas a acometer.

Kepa Sacristán jaunak zera azaldu du: diagnostikoaren ondorioaren une kritikoa, hau da, Getxoko mugikortasunaren erradiografia, orain bizi dugun unea da. Osagai guztiak eskuratu ditugu eta orain datuak eta inkestak prozesatzen ari gara. (Webgunearen bidez parte-hartzeko aukera egun batzuk gehiago luzatuko da).

D. Kepa Sacristán explica que ahora es el momento crítico de la conclusión del diagnóstico, es decir, la radiografía de la Movilidad en Getxo. Tenemos todos los ingredientes y ahora estamos procesando los datos y las encuestas. (La participación a través de la web se va a dejar unos días más).

Informazio guzti horrekin diagnosi-agiri bat egingo da, partekatu egingo dena. Parte-hartzeari dagokionez, urritik aurrera bi saio egongo dira. Izan ere, helburuak irailean definituko dira. **Datorren saiorako Ingurumen Foroa interes-talde izan dadila proposatzen da**.

Con toda la información se va a elaborar un documento de diagnóstico que se compartirá. Con respecto a la participación, habrá otras dos sesiones a partir de octubre puesto que los objetivos se definirán en septiembre. **Se propone que el Foro de medioambiente sea un grupo de interés para la próxima sesión**.

Mugikortasun Planean ekimen ugarirentzako tokia dago: oinezkoentzako bide berriak egitea, bidegorri-sareari buruzko plana osatzea, loturarik gabeko zonak, garraio publikoarekin

En el Plan de Movilidad hay sitio para iniciativas de nuevas peatonalizaciones, completar el plan de la red de bicis, zonas

zerikusia duten alderdiak (geltokiak, informazioa…), egoiliarrentzako aparkaleku-politika eta bisitarien errotazioa, zirkulazioaren noranzkoa aldatzea edo zirkulazioan aldaketak egitea, eta abar.

Iosu Ramírez eta Kepa Sacristán jaunek hitz egin ostean, galderak eta iruzkinak egiteko txanda zabaldu da.

Carlos Arana jaunak beste hiri eta eredu batzuetan arreta jartzea garrantzitsua dela azpimarratu du, bertan nola jokatu duten ikusteko, esaterako, Bartzelonan. Horrez gain, Carlos Arana jaunak adierazi du bizikleten gainean sentsibilizatzeko une oso garrantzitsu bat bizi dugula (harrapatzeak eta abar). Udalak azaldu du, hain zuzen ere, beste toki batzuetako ereduak kontuan hartzen direla. Halaber, azaldu du Europako metropolialdeen zerrendan gure udalerria ibilgailua gutxien erabiltzen duten metropolialdeen artean dagoela. Gure ingurunean (Euskadin) asko ibiltzen gara oinez. Bizikleta garraiobide gisa erabiltzeko ideia berria da Euskadin. Bizikletarekiko zaletasun handia daukagu, baina oso gutxi erabiltzen dugu lanera joateko, ikastera joateko edo erosketak egiteko. Bizikleta guk baino gehiago erabiltzen duten hirietan (Amsterdam, Bartzelona…) beste arazo mota batzuk dituzte, esaterako, bizikleta pribatua espazio publikoan gordetzearena.

Dimas Ramos jaunak esan du bizikletaren kontuarekin zerbait egin beharra dagoela. Zorionez ez da istripurik egon, baina txirrindulariei ez zaizkie isunak jartzen eta askok ez dituzte arauak errespetatzen. Oinezkoak, bizikletak eta autoak mugikortasunean zer eginkizun edukitzea nahi dugun aztertu behar dugu, eta egiturazko eta kontzientziaziozko neurriak jarri.

Bestalde Carlos Arana jaunak aipatu du eragozpenak ere izan ditzakeela; izan ere, kaleak oinezkoentzat jartzeko eskaera asko egiten dira, baina, gero, kale horiek taberna-eremu bilakatzen dira, horrek dakartzan auzotarren kexekin. Celia Marañón andreari oso garrantzitsua iruditzen zaio hiriaren erdigunetik autoak desagertzea. Javier Galán jaunak, ordea, autoak, bizikletak eta oinezkoak elkarrekin bizi daitezkeela uste du, baina horretarako herritarrak hezi beharra dagoela.

Natividad Morales andreak kostaldera iristeko aukeren inguruan galdetu du: ea uda garaian kostaldera joan-etorriak egiten dituen udal-ibilgailuren bat jartzea aurreikusi den (adineko herritarrentzat ere interesgarria izango litzateke). Udalaren izenean, Joseba Arregik zera erantzun du: denetarik egin daitekeela, baina egiten dena mugikortasun-planaren bitartez egin beharra dagoela. Oinezkoek zer portzentaje izango duten eta auto pribatuek zer portzentaje izango duten erabaki behar da. Bestalde, Joseba Arregi jaunak esan du sortzen diren auto-ilarak ere kontuan hartu behar direla, besteak beste, Ereaga hondartzara doan mikrobusaren sarbidea oztopatzen dutenak. Ibilgailu pribatuei sarbidea ixtea oso neurri zorrotza izango litzateke, hortaz, oreka bilatu beharra dago.

Natividad Morales andreak zera adierazi du: pasealekuko espaloia txiki geratu dela; izan ere, ez dago jende guztiarentzako espaloi nahikorik, batez ere eguraldi ona egiten duenean. Nolanahi ere, egoera asko hobetu da: iraganean, Ereagarako sarbidean ibilgailuentzako joateko bi errei eta etortzeko beste bi zeuden, eta

inconexas, todo lo que tenga que ver con transporte público (paradas, información…), política de aparcamiento para residentes y rotación de visitantes, cambios de sentido del tráfico o modificaciones, etc.

Después de las intervenciones de D. Iosu Ramírez y de D. Kepa Sacristán se abre un turno de preguntas y comentarios.

D. Carlos Arana resalta la importancia de fijarse en otras ciudades y referencias para ver cómo se ha hecho, por ejemplo Barcelona. Además D. Carlos Arana apunta a que estamos en un momento muy importante de sensibilización de las bicicletas (atropellos, etc.). Desde el Ayuntamiento se explica que efectivamente miramos a otros y que en el ranking de áreas metropolitanas europeas, la nuestra está entre las que menos usan en coche. Lo que hacemos en nuestro entorno (Euskadi) es andar mucho. La bicicleta como herramienta de transporte es un elemento nuevo en Euskadi. Tenemos mucha afición pero se usa muy poco para ir a trabajar, a estudiar, a comprar… Las ciudades donde se usa más la bicicleta (Ámsterdam, Barcelona…) tienen otro tipo de problemática, como por ejemplo la custodia de bici privada en espacio público.

D. Dimas Ramos señala que hay que hacer algo con el tema de la bicicleta; afortunadamente no ha habido accidentes pero no se pone multas a los ciclistas y muchas personas no respetan. Hay que estudiar el papel que queremos que juegue el peatón, la bici y el coche en la movilidad y poner medidas estructurales y otras de concienciación.

Por otro lado D. Carlos Arana comenta como a todo se le puede poner pegas, hay mucha demanda de peatonalización que luego se convierte en zona de bares con las consiguientes quejas de los vecinos y vecinas. A Dª Celia Marañón le parece muy importante que en el centro de la ciudad desaparezcan los coches. A D. Javier Galán le parece que pueden convivir coches, bicicletas y peatones pero que hay que educar.

Dª Natividad Morales pregunta por el acceso a la zona de costa, a ver si se había contemplado poner un vehículo municipal que vaya y venga en la temporada de verano (sería interesante también por la población envejecida). Desde el Ayuntamiento, D. Joseba Arregi responde que se puede hacer de todo pero necesitamos que se haga a través del plan de movilidad. Hay que decidir qué porcentaje es para el peatón y qué porcentaje para el vehículo privado. Por otro lado D. Joseba Arregi comenta que se deben tener en cuenta también los atascos que se forman, dificultando el acceso de un microbús por ejemplo a la playa de Ereaga. Si se cierra al vehículo privado sería muy drástico, de modo que como en todo, hay que buscar el equilibrio.

Dª Natividad Morales señala también que la acera del paseo se ha quedado pequeña, no hay acera suficiente para toda la gente especialmente cuando hace bueno. De cualquier modo se ha mejorado mucho, en el pasado en el acceso a Ereaga había dos carriles de ida y dos de vuelta para los vehículos, con una acera

espaloia txiki-txikia zen.

Beste alde batetik, aparkalekuaren arazoaren inguruko eztabaida dago: pertzepzioa edo errealitatea al da? Jendeak aparkatzea gero eta zailagoa dela nabaritzen du, baina ez dakigu arrazoi objektiborik dagoen. Horregatik da beharrezkoa kuantifikatzea. Javier Galán jaunaren aburuz Arautako Aparkaleku Zerbitzua (AAZ) behar baino luzeagoa da. Diru gutxi ordainduta goiz edo arratsalde osoan zehar aparkatu daiteke. Zenbakiek diotenaren arabera, bi ordu eta erdi baino gehiagoz aparkatzen dutenak % 11 baino ez dira. Horrek esan nahi du lan egitera datozenek ez dutela AAZ eremuan aparkatzen.

Celia Marañón andreak esan du ibilgailua garraiobide gisa erabiltzeari mesede egiten jarraitzen zaiola. Dimas Ramos jaunak dio denbora oso preziatua dela eta autoa geldiezina dela. Autoak eskaintzen duen erosotasuna eta garraio publikoa parez pare jartzen dira. Gainera, garraio publikoa oso garestia da. Dimas Ramosek esan du jendeak ez duela BizkaiBusa erabiltzen. Getxo eta aireportua lotuko dituen autobus posible bati buruz galdetu da. Planari dagokionez, egunerokotasuna da garrantzi gehien daukana: jendea nola mugitzen den lanera joateko, ikastera joateko, erosteko, aisialdian…

Josu Ateka jaunak aipatu du 15 urtetan asko aldatu garela. Kaleak erabat aldatu dira. Mundu guztiak dio beldurra aldaketari, batez ere merkatariek. Aldaketa zorrotzak egon daitezke; horregatik da beharrezkoa diagnostikoa sozializatzea eta, geroago, gauzatuko diren ekintzak sozializatzea.

Beste alde batetik, Josu Ateka jaunak aipatu du hurbileko beste edozein udalerriren mugikortasun-kudeaketak ere Getxori eragiten diola. Bilboko HMPJak eragin handia du gugan, baita Txorierriko kontuak ere.

Auto elektrikoari dagokionez, Foroak adierazi du kutsaduraren kontuak hobera egitea espero dutela. CO2 murriztu egingo da, nahiz eta autoek energia kontsumitzen eta asfalto-partikulak altxatzen jarraituko duten. Xabi Buenetxea jaunak nabarmendu du auto tradizionalen emisioek biodibertsitatea hondatzen dutela, eta auto-ilara batek kalte handia egiten diola ingurumenari. Auto elektrikoak ez ditu espazioari eta mugikortasunari lotutako arazoak hobetuko; hala ere, nahiago luke auto guztiak elektrikoak izango balira, hartara, emisiorik ez izateko.

Xabier Buenetxea jaunak galdetu du ea katalogo naturalistikoa interesgarria izan daitekeen HMPJrako. Udalaren aburuz, garrantzitsuagoa izango litzateke Hiri-antolamenduko Plan Orokorrerako (HAPO). HMPJ urte amaierarako prest egongo da, HAPO, aldiz, datorren urtean diseinatuko da. Gainera, HAPO lantzen duen lantaldeak ere mugikortasuna aztertuko du.

Amaitzeko, Kepa Sacristán jaunak udalerriko egoeraren abiapuntua, udalerriaren intermodalitatea, azpimarratu du: sei metro-geltoki ditugu erdiguneetan. Zalantzarik gabe, gehiago lan egin beharra dago: igogailuak, irisgarritasun-planak... Mugikortasunaren gaineko eztabaida hirigintzaren baitan sartzen da.

Joseba Arregi jaunak esan du Getxok ez duela hirigintzako

minúscula.

Por otro lado se debate sobre el problema de aparcamiento, ¿es una percepción o una realidad? La gente percibe que cada vez aparca peor, pero no sabemos todavía si hay razones objetivas, por eso es necesario cuantificar. D. Javier Galán opina que la duración del SER (OTA) es excesivamente larga, se puede aparcar toda la mañana o toda la tarde por poco dinero. Los números dicen que tan solo el 11% de los estacionamientos es de más de 2 horas y media, lo cual significa que el que va a trabajar no aparca en zona de OTA.

Dª Celia Marañón comenta que se sigue favoreciendo al coche como medio de transporteD. Dimas Ramos señala que el tiempo es oro, el coche es imparable. Se destaca la comodidad del coche frente al transporte público. Además el transporte público es muy caro. Dimas Ramos señala que la gente no utiliza el BizkaiBus. Se pregunta también sobre el potencial autobús entre Getxo y el aeropuerto. De cara al Plan, lo que tiene calado es el día a día, cómo se mueve la gente para ir a trabajar, estudiar, comprar, ocio…

D. Josu Ateka señala que en 15 años hemos cambiado mucho, las calles han cambiado radicalmente. A todo el mundo le asustan los cambios y a los comerciantes más. Puede haber cambios drásticos y por eso es necesario socializar el diagnóstico y más tarde las acciones a acometer.

Por otro lado D. Josu Ateka comenta también como Getxo se ve afectado por la gestión de la movilidad de cualquier municipio cercano. Nos afecta mucho el PMUS de Bilbao, todo el tema del Txorierri, etc.

Con respecto al coche eléctrico el Foro comenta como se espera que mejore el tema de la contaminación. Se va a reducir el CO2 a pesar de que se va a seguir consumiendo energía y levantándose partículas del asfalto a su paso. D. Xabi Buenetxea señala que las emisiones de los coches tradicionales dañan la biodiversidad, y una caravana de coches, perjudica mucho al medio ambiente. El coche eléctrico no mejorará los problemas de espacio y movilidad pero ojalá que sean todos eléctricos para no tener emisiones.

D. Xabier Buenetxea pregunta a ver si el catálogo naturalístico, podría ser de interés para el PMUS. El Ayuntamiento cree que sería más relevante en el Plan General de Ordenación Urbana (PGOU). El PMUS estará listo a finales de este año y el diseño de PGOU será el año que viene. Además el equipo del PGOU también analizará la movilidad.

Para terminar D. Kepa Sacristán destaca la situación de la que parte el municipio, su intermodalidad, tenemos 6 paradas de metro en los centros. Hay que trabajar más sin duda, tener ascensores, planes de accesibilidad... El debate de la movilidad está en el urbanismo.

D. Joseba Arregi señala que Getxo no ha desarrollado una política urbanística porque decidió ser una ciudad residencial.

politikarik garatu, bizitegi-herri bat izatea erabaki zelako. Horrek esan nahi du Getxok ez daukala lan egiteko tokirik. Herritarren % 85 udalerritik kanpo egiten du lan, eta Getxon dagoen lan apurrari dagokionez, langileen % 70 ez dira Getxokoak.

Horrenbestez, hartu beharreko erabakiak dira horiek, etorkizuneko HAPOn barne hartu beharko liratekeenak.

**2.- 2017-03-07an egindako Foroaren akta onestea.**

Ingurumen Foroaren 2017ko martxoaren 7ko bileraren akta aho batez onetsi da.

**3.- Getxoko Tokiko Jasangarritasun Adierazleen Garapen Txostena 2006-2016**

Jasangarritasun adierazleen garapen-txosten bat egin da zortzi eremu desberdinetan, eta emaitzak labur-labur aurkeztu dira.

Hondakinak

- Hondakinen sorrera: 2010etik 2015era bitartean, sortutako hondakinen kopurua murriztu egin da. biztanle bakoitzeko egunean 1,11 kg izatetik (2010ean) biztanle bakoitzeko egunean 0,98 kg izatera (2015ean). 2016an igoera txiki bat sumatu zen: biztanle bakoitzeko egunean 1,02 kg.
- Gaikako bilketa: Azken hiru urteetan, etengabeko igoera bat antzeman da: % 21etik % 25 izatera iritsi zen 2016an.
- Errefusa: Errefusa nabarmen murriztu da, bereziki, 2013tik (% 78,9) 2016ra (% 75,3).

Ura eta airea

- Azken urteotan, bainurako urak nabarmen hobetu dira.
- Areetako hondartzan bainatzeko egun ez-egokiak % 1 baino gutxiago izan dira.
- Areetako hondartzari dagokionez, 2017ko aldirako urteko sailkapena hobetu egin da: NAHIKOA izatetik ONA izatera.
- Aire-kalitatea “oso ona” eta “ona” artean ibili da.
- Ez dira muga-balioak gainditu aztertutako ezein kutsatzailetan (SO2, CO, PM10, NO eta NO2, eta ozonoa).

Zaratak

- 2012az geroztik erregistratutako intzidentziak murriztu egin dira, batez ere, lonjetan eta garajeetan: 229tik 162ra (2016an), bai eta bide publikoan ere.
- Azken urteon, areagotu egin dira tabernetan, 162tik (2015ean) 183ra (2016an) eta etxebizitzetan 87tik102ra.

Sozioekonomikoa

- Azken bi urteetan langabezia-tasa orokorrak % 2 egin du behera Getxon.
- Azken hiru urteetan, etorkinen joera beheranzkoa izan da eta, batez ere, Europar Batasunekoak ez diren biztanleei eragiten die.

- Diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duen familia-

Esto quiere decir que Getxo no dispone de lugares donde trabajar, el 85% sale del municipio a trabajar y del poco trabajo que hay en Getxo, más del 70% de los trabajadores de Getxo no son Getxo.

Así que son decisiones que hay que tomar y que se deberían incorporar al futuro PGOU.

**2.- Aprobación del Acta del Foro celebrado el 07.03.17.**

Se aprueba por unanimidad el acta de la última reunión del Foro de Medio Ambiente del 7 de marzo de 2017.

**3.- Informe de Evolución de los Indicadores de Sostenibilidad Local de Getxo 2006-2016**

Se ha elaborado un informe de evolución de indicadores de sostenibilidad en 8 áreas diferentes y se presentan brevemente los resultados.

Residuos

- Generación de residuos: Desde 2010 a 2015 ha descendido la generación de residuos de 1,11 kg/hab./día (2010) a 0,98 kg/hab/día en 2015. En 2016 se aprecia una ligera subida a 1,02 kg/hab./día.
- Recogida selectiva: En los últimos 3 años ha experimentado un aumento progresivo, pasando de suponer el 21% de total al 25% en 2016.
- Fracción resto: Disminución significativa de la fracción resto particularmente desde el año 2013 (78,9%) a 75,3% en 2016.

Aguas y aire

- Las aguas de baño han mejorado de forma sensible en los últimos años.
- Han sido menos del 1% los días no aptos para el baño en la playa de Las Arenas.
- La clasificación anual para la temporada 2017 ha mejorado en la playa de Las Arenas de SUFICIENTE a BUENA.
- La calidad del aire ha estado entre muy buena y buena.
- No se han superado los valores límites en ninguno de los contaminantes analizados (SO2, CO, PM10, NO y NO2, y ozono).

Ruidos

- Desde 2012 las incidencias recogidas en lonjas han disminuido particularmente en lonjas y garajes, de 229 a 162 en 2016, así como en la vía publica
- En el último año han aumentado en bares, de 162 incidencias en 2015 a 183 en 2016 y viviendas de 87 a 102.

Socioeconómico

- La tasa de paro general ha descendido en Getxo los últimos 2 años en un 2%.
- En los últimos tres años la tendencia de la población inmigrante es decreciente, y sobre todo afecta a la población que no es de la UE.

kopuruak gora egin du urtero 2006az geroztik. 2015. urteaz geroztik, joera beheranzkoa izan da.

Parte-hartzea eta ingurumen-hezkuntza

- 2015. urteaz geroztik, herritarrek parte hartzeko 10 bilera egin dira.
- Aquariumari dagokionez, 2015ean eta 2016an berreskuratu egin da 2008an lortutako bisitarien batez besteko kopurua.
- 2015/2016 ikasturtean Eskolako Agenda 21en parte hartu zuten ikasleen kopurua % 13 handitu zen aurreko ikasturtearekin alderatuta.
- Getxoko lehen hezkuntzako ikasleekin 11 ibilbide gutxiago egin ziren 2015/2016 ikasturtean. Bigarren hezkuntzako taldeek, berriz, aurreko ikasturtean baino 22 ibilbide gehiago egin zituzten.

Lurzorua

- Biztanle bakoitzeko parke eta lorategien azaleraren areagotzea metro karratuetan: 7,22 m2/h-tik (2014an) 9,46 ms/h-ra (2016an).
- Azken urteotan, potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen azalera ez da aldatu (147.000 m2).
- Udalerriko babestutako azalerak ere ez du aldaketarik izan; azalera osoaren % 1,99 da.

Energia

- Ziurtagiri energetikoa daukaten etxebizitzak gero eta gehiago dira: 2016an 4.000 baino gehiago ziren.
- Ziurtagiria daukaten etxebizitza gehienek (% 52) E sailkapena daukate. Gutxi dira A, B edo C sailkapena daukatenak.

Garraioa eta ibilgailuak

- Guztira, azaleko 14.099 aparkaleku-plaza daude, hau da, 2014an baino ia 200 gehiago.
- Lurrazpiko aparkaleku-plaza publikoei dagokienez, 2016an 1.517 aparkaleku zeuden. (Gehikuntza hori Alangoko aparkalekuko 248 toki berriei esker lortu da).
- Mugikortasun urriko pertsonentzat gordetako 342 aparkaleku daude.
- Azken bi urteotan, ibilgailu-kopuruak gora egin du Getxon: 1000 biztanleko 607 ibilgailu daude.
- Bizikleta-mailegu kopurua (Getxo Bizi) nabarmen areagotu da 2016an eta 2011ko balioetara heldu da. Areagotze hori APARKA sistema berriari egozten zaio batez ere.
- 2016an, erabiltzaile-kopurua laukoiztu egin zen, aurreko urtearekin alderatuta.

Txostena zirriborro bat da oraindik, energiari eta urari buruzko datu batzuk falta direlako. Txostenean populazio-piramidea ere barne hartzeko gomendatu du Foroak.

Jarraian, Getxoko enpleguari buruzko eztabaida bat hasi da. Aipatutako langabezia-tasak zera adierazten du: langabezian dauden Getxoko biztanleen kopurua. Azken urteotan Getxon

- El nº de familias preceptoras de la RGI va en aumento cada año desde 2006. A partir del 2015, la tendencia se sitúa a la baja

Participación y educación ambiental

- 10 reuniones de participación ciudadana a partir de 2015
- Con respecto al Aquarium, en 2015 y 2016 se recuperan la media de visitantes alcanzada en 2008.
- El nº de alumnos y alumnas participantes en el curso 2015/16 en la Agenda Escolar 21 se ha incrementado un 13% respecto al curso anterior
- Entre el alumnado de primaria de Getxo se realizan 11 itinerarios menos en el cruso 2015-16. Los grupos participantes de secundaria, sin embargo realizan 22 itinerarios más que el curso anterior.

Suelo

- Incremento de la superficie de parques y jardines públicos en m2 por habitante , de 7,22 m2/h en 2014 a 9,46 ms/h en 2016.
- En los últimos años la superficie de suelos potencialmente contaminados no ha variado (147.000 m2).
- La superficie protegida en el municipio también se mantiene constante en 1,99% del total de superficie.

Energía

- Cada vez son más las viviendas con certificado energético, alcanzando más de 4.000 en 2016.
- La mayor parte de las viviendas certificadas (52%) cuentan con certificado E. Pocas viviendas tienen certificado A, B o C.

Transporte y parque móvil

- En total, el número de plazas de aparcamiento existentes en superficie es 14.099 casi 200 plazas más que en el año 2014.
- En cuanto a plazas de aparcamiento público subterráneo a fecha de 2016 hay 1.517. (Incremento debido a las 248 plazas del parking de Alango).
- Hay 342 plazas de estacionamiento reservadas a personas con movilidad reducida
- El nº vehículos ha aumentado en Getxo los dos últimos años alcanzando los 607 vehículos/ 1000 habitantes
- El nº de préstamos de bicicletas (Getxo Bizi) ha aumentado significativamente en 2016 alcanzando los valores de 2011. Este aumento se achaca principalmente al nuevo sistema APARKA.
- En 2016 el número de personas usuarias prácticamente se ha cuadriplicado con respecto al año anterior.

El informe todavía es un borrador puesto que faltan algunos datos de energía y agua. El Foro recomienda también incluir la pirámide poblacional en el informe.

A continuación se abre un debate sobre el empleo en Getxo. La tasa de paro indicada se refiere al número de vecinos y vecinas de Getxo que se encuentran en desempleo. Se ha detectado que

saltoki asko itxi direla antzeman da. Tokiko merkataritza sustatu beharra dago, saltokiak bereizi egin behar dira; izan ere, gazteak Arteara joaten dira.

se cierran muchos comercios en Getxo en los últimos años. Se debe incentivar el comercio local, que se diferencien más, la gente joven se va a Artea.

Natividad Morales andreak jakin nahi du zergatik dauden potentzialki kutsatutako lurzoruak Getxon. Horren inguruko azalpena eman da: bere garaian lurzorua kutsatu ahal izan zuen jarduera bat jasan zuten eremuak dira: gasolindegiak, margo-enpresak, tindategiak eta abar. Horrek ez du esan nahi kutsatuta daudenik.

Dª Natividad Morales quiere saber por qué existen suelos potencialmente contaminados en Getxo. Se explica que son áreas donde en su día hubo alguna actividad que podría haber contaminado el suelo, esto puede ser antiguas gasolineras, empresas de pintura, tintes, etc. No quiere decir que estén contaminados.

Xabi Buenetxea jaunak galdetu du ea Getxo Bizi eta Uribe Kostako Bizimeta lotzerik dagoen. Hain zuzen ere, egokiena izango litzatekeela erantzun diote. Gure geltokietan kanpoko bizikletek ere aparka dezakete. Uribe Kostak lehiaketaren lizitazioa aterako du laster eta ondo egongo litzateke APARKA sistema bat aukeratzea, sistemaren jarraipen bat egon dadin. Etorkizunean, Barik txartelarekin edonon funtzionatzen duen sistema bat egon beharko da. Baita Leioan eta Bilbon ere (lehenago edo geroago, itsasadarraren ertzetik doan bidegorri bat egongo da).

D. Xabi Buenetxea pregunta a ver si sería posible unir Getxo Bizi con Bizimeta de Uribe Kosta. Se le responde que efectivamente sería lo ideal. En nuestras estaciones pueden aparcar otras bicis, ojalá que Uribe Kosta que ahora sacaba el concurso a licitación elija un sistema APARKA para que haya una continuidad. El futuro será un sistema que funcione con la barik por todas partes. Con Leioa también y con Bilbao (antes o después habrá un bidegorri por la ría).

Foroko kideei txostenaren zirriborroa helaraziko zaie, nahiz eta ez den behin betikoa, datu batzuk falta direlako.

Se va a enviar el borrador del informe a los miembros del Foro aunque éste todavía no es el definitivo porque faltan algunos datos.

**4.- Ingurumen Aretoko bisita. (Eguna adostea)**

**4.- Visita al Aula Medioambiental. (Acordar fecha)**

Uda laster helduko denez gero, Ingurumen Aretoko bisita atzeratzea erabaki da eta oporrak amaitzen direnerako utziko da. Foroaren hurrengo bileran adostuko da bisita egiteko eguna.

Considerando la proximidad del periodo estival, se decide posponer la visita al Aula Medioambiental, dejándola para la vuelta de las vacaciones. En la próxima reunión del Foro se decidirá la fecha de la visita.

**5.- Galde-eskeak.**

**5.- Ruegos y preguntas.**

Josu Ateka jaunak aipatu du Ingurumen Aretoak asteburuko jarduerak antolatzen dituela. Foroko kideei egitaraua bidaliko zaie. Informazio eguneratua webgunean dago eskuragarri: http://www.getxo.eus/es/medio-ambiente/aula-ambiental

D. Josu Ateka comenta que el Aula Medioambiental organiza actividades de fin de semana. Se va a enviar el programa a los miembros del Foro. La información actualizada está disponible en la web: http://www.getxo.eus/es/medio-ambiente/aula-ambiental

Natividad Morales andreak adierazi du ez dagoela pozik zabor-edukiontzi berriekin, izan ere, edukiontzia ireki ahal izateko poltsa askatu beharra dago. Joseba Arregi jaunak azaldu du irisgarritasun unibertsalaren ikuspuntutik edukiontzi mota desberdinak aztertu zirela eta irisgarriena aukeratu zela. Ez dago edukiontzi perfekturik eta hori da aurkitu dugun onena. Joseba Arregi jaunak datu bat eman du: 300 kexa jaso dira edukiontzia dela eta. Kepa Sacristán jaunak zehaztu du lehen edukiontziek pedal bat izaten zutela edukiontziaren estalkiak asko pisatzen zuelako. Estalkiaren pisua arintzen den unetik aurrera, pedala soberan dago. Gainera, intzidentzia asko sortzen ditu.

Dª Natividad Morales expresa que está descontenta con los nuevos contenedores de basura porque tienes que soltar la bolsa para abrirlo. D. Joseba Arregi explica cómo se analizaron diferentes tipos de contendores desde el punto de vista de la accesibilidad universal y el que se eligió fue el más accesible. No existe el contendor perfecto y éste es el mejor que se ha encontrado. D. Joseba Arregi también ofrece el dato de que se han recibido 300 quejas a propósito del contenedor. D. Kepa Sacristán comenta que el pedal existía porque la tapa pesaba demasiado, en el momento en que se aligera el peso de la tapa, el pedal sobra y además es motivo de numerosas incidencias.

Dimas Ramos jaunak papera birziklatzen denean paperezko poltsa bat (eta ez plastikozko bat) erabiltzeari buruz kontzientziatzea iradoki du.

D. Dimas Ramos sugiere concienciar sobre la utilización de una bolsa de papel (y no de plástico) cuando se recicle papel.

Celia Marañón andreari bosgarren edukiontziaren bilketaren inguruko datuak ezagutzea gustatuko litzaioke; izan ere, entzun duenaren arabera, egindako bilketa ez zen tratamendua jasotzeko

A Dª Celia Marañón le gustaría conocer los datos de recogida del 5º contenedor ya que ha oído que la recogida no fue apta para el tratamiento. Efectivamente, la primera recogida se

egokia izan. Hain zuzen ere, lehenengo bilketa baztertu behar izan zen, baina bigarrenean sei tona bildu eta konposta egiteko instalaziora bidali ziren. Kalean 238 edukiontzi marroi daude eta1.790 txartel banatu dira. Celia Marañón andreak berriro dio oso garrantzitsua dela jendeari informazioa ematea eta bosgarren edukiontziaren inguruan biztanleak kontzientziatzea.

Natividad Morales andreak zera eskatu du: txakurrek fatxadetan pixa egiten dutenean sortzen den zikintasunaren gainean biztanleria kontzientziatzea; izan ere, usaina eta lohikeria sortzen dute eta, ondorioz, saltokiek desinfektatzeko produktuak bota behar izaten dituzte. Arazo horri dagokionez, albaitariek udalari jakinarazi diote etologia-kontu bat dela: txakurraren jokabide naturala da eta, ondorioz, oso zaila da hori ekiditea. Natividad Morales andreak uste du hezkuntzari eta jabeari lotutako kontua dela, gorotz egiten hezi zaien bezala (asko hobetu da hori). Uste du ahalik arinen egin beharra dagoela; izan ere, kaleek nahiko itxura penagarria dute, antihigienikoak izateaz gain.

Natividad Morales andreak Erromoko Kultur Etxeko Nagusien Etxe berriaren inguruan galdetu du. Gaur egun, Nagusien Etxea hornitzen ari dira, mahaiak eta aulkiak falta dira.

Natividad Morales andreari gustatuko litzaioke jakitea ea udalak zerbait egin dezakeen “etxe xumeenetako” (hala esan ohi zaie) fatxadak konpontzeko; izan ere, aintzat hartuta inguruko plangintza eta aipatutako etxeak Kultur Etxearen aurrean daudela, logikoa dirudi udala arduratzea gastu hori kudeatzeaz. Emandako erantzunean adierazi da etxeak jabetza pribatukoak direla eta udalak ezin dezakeela lagundun hizpide dugun kasuan.

Azkenik, Natividad Morales andreak hauxe jakinarazi die Foroko kideei: erabiltzaile gehienak nahiz Romoko auzo-elkarteko kide gehienak Nagusien Etxea eraistearen aurka agertu dira. Beharrezkoa da eguneko zentro bat izatea; izan ere, Romo-Areetan adineko pertsona ugari daude eta, horrela, ez lukete autobusaren beharrik izango horra joateko. Kontuan hartu beharra dago zein garrantzitsua izan daitekeen hori desgaitasun fisikoak eta mentalak dituzten pertsonentzat.

Getxon, 21:20ak izanik, bilkura amaitutzat jo da.

desechó pero en la segunda se recogieron 6 toneladas que se enviaron a la planta de compostaje. Hay 238 contenedores marrones en la calle y se han dispensado 1.790 tarjetas. Dª Celia Marañón insiste en la importancia de informar y concienciar a la gente sobre este quinto contenedor.

Dª Natividad Morales quiere que se exija a la ciudadanía una toma de conciencia, por la suciedad que se genera con el pis de los perros sobre las fachadas de las viviendas, generando olores y suciedad y obligando a los negocios a echar productos para la desinfección. Sobre esta cuestión, los veterinarios han informado al Ayuntamiento de que es una cuestión etológica; es el comportamiento natural de un perro y por ello difícilmente evitable. Dª Natividad Morales opina que es una cuestión de educación, también del dueño, como se ha educado con las heces (se ha mejorado mucho). Cree que es necesario hacerlo lo antes posible puesto que las calles dan una imagen bastante penosa, además de antihigiénicas.

Dª Natividad Morales pregunta por la nueva Nagusien Etxea de la Kultur Etxea de Romo. En la actualidad se está equipando, faltan mesas y sillas.

A Dª Natividad Morales le gustaría saber si el Ayuntamiento puede hacer algo para arreglar las fachadas de las comunmente denominadas “casas baratas” porque dada la planificación del entorno y que estas casas están frente a la Kultur Etxea parece bastante lógico que sea el Ayuntamiento el que gestione ese gasto. Se responde que las casas son propiedad privada y el Ayuntamiento no puede ayudar en este caso.

Finalmente Dª Natividad Morales traslada al Foro que la mayoría de las personas usuarias y de la Asociación de Vecinos de Romo, están en contra del derribo de la Nagusien Etxea. Es necesario un Centro de Dia dada la avanzada edad de la población de Romo-Las Arenas para no tener que desplazarse en autobús, teniendo en cuenta lo que esto supone para personas con discapacidades físicas y mentales.

En Getxo, a las 21:20 horas se da por finalizada la reunión.